

HHS IRATI MANKOMUNITATEAREN III ARGAZKI LEHIAKETA.

Lehiaketarako arauak.

1. PARTE-HARTZAILEAK.

Lehiaketa honetan 16 urte baino gehiago dituen edozein pertsonak parte har dezake, izan profesionala edo izan argazkizalea.

2. GAIA ETA MAILAK.

Argazkiek proposaturiko gaiarekin izan beharko dute zerikusia: **“BBBB” Birpentsatu, berrerabili, Beheratu eta Birziklatu, HHS Irati Mankomunitatea osatzen duten herrietan:** Agoiz, Artzibar, Ibargoiti, Izagaondoa, Lizoainibar-Arriasoiti, Longida, Elo, Untzitibar, Urraul Goiti, Urraul Behiti eta Urroz Hiria.

Mankomunitatea osatzen duten herri edota tokiekin identifika ezin daitezkeen argazkiak lehiaketatik kanporatuak izango dira.

3. ARGAZKI KOPURUA.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

4. FORMATUA.

Argazkiak JPEG formatuan aurkeztu beharko dira, gutxieneko erresoluzioa 4Mp-koa izango da eta artxiboak alderik laburrenean gutxienez 35zm-ko neurria izango du.

Fotomontajeak espresuki debekatuta daude. Epai-mahaiak baztertu egingo ditu, bere ustez manipulatuak izan diren argazkiak, zein leku eta denboran kointziditzen ez duten argazkiak.

5. LANEN AURKEZPENA.

Parte-hartzaileek beren argazkiak hauetako helbide elektronikoko batera bidali beharko dituzte:

infocompost@rsuirati.es

mancomunidadirati@hotmail.com

JPEG formatuko argazkiez gain, parte-hartzaileek testu-artxibo bat bidali beharko dute honako datu hauekin:

. Datu pertsonalak (izena, abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa)

. Argazki bakoitzari dagokion azalpen testua. 200 hitz gehienez.

.1. argazkia: titulua

• 2. argazkia: titulua.

• 3. argazkia: titulua.

Parte-hartzaile bakoitzari argazkia jaso dela eta egoki ikusten dela konfirmatzeko korreo elektronikoa bidaliko zaio.

Argazki guztiak jasotakoan, berauek epai-mahaikoei pasatuko zaizkie, beraien lana egin dezaten.

Lehiakide guztien anonimatoa gordeko da momentu oro.

6. ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA.

Argazkiak, 2018ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean bidali daitezke.

7.LANAK.

Argazkiek argitaratu gabeak izan beharko dute, hau da, ez aldizkari, ez egunkari, ez liburu ez online inoiz argitaratu gabeak. Ez dira beste lehiaketa batzuetara aurkeztutako argazkiak onartuko. Inoiz saritu gabeak izan beharko dute. Epai-mahaikoek sormena, adierazgarritasuna eta aurkeztutako lanen kalitatea izango dituzte kontuan.

8.JABETZA.

Argazkien jabetza beti lehiakidearena izango bada ere, HHS Irati Mankomunitateak bere argitalpenetan argazki hauek erabiltzeko eskubidea izango du. Kasu hauetan egilea zein den esango da beti. Mankomunitateak egin dezakeen erabilera honegatik, argazkiaren egileari ez zaio diru-saririk emango.

Mankomunitateak aurreuposatzen du, argazkia egin duenak, argazkian agertzen diren pertsonen baimena izango duela argazkia lehiaketara aurkezteko eta berauen erabilera egin ahal izateko. Argazkiaren egilearena izango da intimitaterako eskubideari dagozkion ondorioen ardura guztia

9.EPAIMAHAIA.

Epaimahaian gutxienez honako hauek egongo dira:

.Mankomunitateko presidentea.

.Argazkilari profesional bat.

.Langileen ordezkari bat edota mankomunitatea osatzen duten

udaletako ordezkari bat.

10. SARIAK.

Hiru sari banatuko dira:

1. saria: 300 euro

2. eta 3. sariak Mankomunitatearen esparruko jabetxe batean 2 lagunentzako afaria.

12. ARAUAK ONARTZEA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak bertan agertzen diren arauak onartzea esan nahi du.